

GERALEKU ALDAKETA DONOSTIAN ERREGE MAGOEN KABALGATA DELA ETA

Euskotrenek, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Sozietate Publikoak, aldaketak sartuko ditu bihar, urtarrilaren 5ean, Zumaia-Donostia UK09, UK10 eta UK11 autobusen Donostiako ibilbidean, Errege Magoen Kabalgata dela eta.

Zerbitzuaren aldaketa jasoko duten zirkulazio bakarrak, 16:30etik 21:10era Donostiatik Zumaiara abiatzen diren zirkulazioak izango dira. Epealdi horretan zerbitzurik gabe egongo da Askatasun Etorbideko ohiko geralekua, eta haren ordezkari Zubieta kaleko 14an eskainiko da zerbitzua.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: ostirala, 2019ko urtarrilaren 4a

Euskadi, auzolana, bien común

